

ARAZO EGOERA


SAGARRONDOEN HISTORIA ETA EGOERA

ARLOA: Natur zientziak, Gizarte zientziak, Historia eta Inglesa

MAILA: Batxilergoa eta lanbide heziketa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Sagarrak eta **sagarrondoak**, **euskal kulturaren nortasunaren eraikuntzan garrantzia handia** izan du. XVII. Mendearen ondoren, Ameriketako artoaren etorrerarekin eta ondorengo, pinuaren landaketa masiboarekin, krisialdi gogorra izan zuen.

Ez dakigu, noiztik bizi izan den **gure lurretan**, baina denborak esan digu, hemengo lurretara, **oso ondo moldatu den zuhaitza** dela. Horren adibide garbia da, gure basoetan aurkitzen den *Malus sylvestris*, sagar makatzak ematen dituen zuhaitz arantzatsua.

ARAZOA

Erasmus programaren barne, Italiako herri bateko ikasleekin elkartruke esperientzia egin behar duzue, aurtengo ikasturtean. Hala nola, ikasle atzerritar horien herrialdea ere, sagarraren ekoizpenean kultura handiko historia izanagatik, gaur egungo errealitatea, oso ezberdina da. Izan ere, Italiako inguru horretan ekoizten den sagarra da kontsumitzen den bakarra. Aldiz, hemengo errealitatea bestelako da, kanpoko sagar asko kontsumitzen baita, bai sagardotegietan baita etxeko kontsumoan ere.

Beraz, sagarraren gaia, bi alderdiak amankomunean duten gai bat izanik, informazio trukea egitea oso aberasgarria izan daiteke.

Hori dela eta, ikasle atzerritarrak hona etortzen direnean, hemengo **sagarraren eta sagardoaren kulturaren inguruko hitzaldi edo aurkezpen bat** jasoko lukete. Bueltan, beraien herrialdean, modu antzekoan, sagarraren kulturak historian eman duena eta momentu honetan bizi dena ezagutzeko aukera izango duzue.

Era horretara, **kultura biak aberasteko aukera** izango da. Ondorio gisa, nekazaritza arloko arduradunei **proposamen interesgarriak egin** daitezke.

XEDEA

Sagarrondoek eta bere eratorriak (sagardoa, sagar zukua,...) **gure kulturaren, paisaian, ekonomian, kontsumoan,...** izan duten **eragina aztertzea** eta **jasangarritasunaren aldetik, egoera hobetzeko gomendioak** aztertzea.

HELBURUAK

- **Sagarrondoek historian zehar** gure lurreko paisaian, nekazaritzan, kulturaren, ekonomian, **...izan duten eraginaz konturatzeta.**
- Gaur egun, **hemengo sagarrak gure kontsumoan duen presentziaren kontzientzia hartzea.**
- **Merkatuan saltzen diren sagar motak, jatorria, ekoizpen modua, prezioa,...**aztertzea.

Naturan hezten

- **Sagardotegietan erabiltzen den sagarraren jatorria, prezioa, ekoizpen modua,...aztertzea.**
- Hemengo **merkatua kanpotik sartzen den sagar motak, ekoizpen moduak, prezioa, jatorria,... aztertzea.**
- Informazio hori, atzeritarrek ulertzeko moduan, **ingelesez komunikatzea.**

ATAZA

Sagarrak eta sagardotegiek gure lurretan izan duen historiaz ohartzea. Sagarrondoak, sagar motak eta sagarraren ekoizte moduak ezagutzea. Gaur egungo **merkatuan, bertako eta kanpoko sagarraren egoera aztertzea.** Ekoizpen moduetan, etorkizunera begira dauden joerak aztertzea. **Kontsumo ohituren inguruan, hausnarketa sakona egitea.**

JARRAIBIDEAK

- Sagarrondoak ezagutzeko, ezinbesteko balintza, **gertuko sagasti batetara bisita egitea** da, urteko garai ezberdinetan: negu garaian, udaberriko loraldian eta udazkeneko uzta garaian. Ekoizleari elkarrizketa eginez, **informazio bilketa egitea.**
- Taldeka antolatu daitezkeen **azterketa arloak** izan daitezke:
 - Sagarraren eta sagardotegien **historiaren azterketa.**
 - Informazio iturria: Gipuzkoako pomologia batzordearen ehun urte liburua. Lourdes Odriozola Oyarbide.
 - Inguruan, sagarrarekin lotura duten adineko jendea.
 - **Sagarrondoan ezaugarriak eta ekoizpen moduak aztertzea.**
 - Gertuan den, sagasti batetara edota sagardotegi batetara bisita eginda.
 - **Gaur egun, hemengo sagarrondoan egoera, eta sagar ekoizpena.**
 - Informazio iturria: Fruitel, frutazainen elkarte
 - **Merkatuan saltzen den hemengo sagarraren azterketa.** Sagar motak eta ekoizpen moduak.

Naturan hezten

- Hemen merkaturatzen den **kanpoko sagarraren azterketa. Jasangarritasun irizpideak.**

- Bildutako informazio guzti horrekin, Erasmuseko ikasleei azalduko zitzaien moduan, **taldeka aurkezpenak egitea.** Horretarako, beharrezkoa izango da, bildutako informazio guzti hori, **inglesera itzultzea.**

- Talde guztien aurkezpenak entzun ondoren, **hausnarketa egitea,** ondorengo gai arloak jorratuz:
 - Sagarra hain fruitu osasuntsua izanda eta gure lurrak, horretarako aproposak, zergatik merkaturatzen da, hainbeste kanpoko sagar?
 - “Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau” esaerak dioen moduan, sagarraren kontuetan ere, ez ote gabilta urrutira begira?
 - Kanpoko hainbeste sagar ekoizteak, gure paisaian, kutsaduran, lur jabeengan, gizarte osoarengan dituen eraginak aztertu eta hausnartzea.
 - Etorkizunera begira, sagarrondoan inguruko zein egoera ikusten den aztertzea.
 - Km 0 eta jasangarritasun irizpideen aldetik, egoera hori hobetzeko proposamenak lantzea.

- Bildutako informazio horrekin, **proposamenak zehaztu** eta **nekazaritza arloko arduradunei helaraztea.**